

Argi izpiak iluntasunean

LEHEN FASEAREN AMAIERA. Hamar bikoterekin hasi zen txapelketa eta laurekin jarraitzen du. Balorazioak egiteko lehen mugarra ezarri da: kaskarretik gehiago du onetik baino

Enekoitz Telleria | DONOSTIA

Ale bakar batzuen jardunak besteena estali ezin duenez, ezin da Eskuz Binakako Txapelketako lehen fasearen balantze positiborik egin. Finalerdietara sailkatu diren lau bikoteek sobera erakutsi dute zergatik egin duten aurrera. Atzera gelditu diren artean, asko, erakutsi gabe gelditu dira zergatik lortu zuten aurtengo txapelketan parte hartzeko postu bat. Izenak ez du jokoa ematen, eta frontoiak jendez itsu-itsuan betetzeko grinak ez dakar berarekin ikuskizunik. «Txapelketak ez ditu sasoiko harrapatu», da argudio nagusia. Nork harrapatu behar du nor? Txapelketak pilotaria edo pilotariak txapelketa?

OLAIZOLA I.a-RUIZ. Finaleraino iritsi ziren iaz eta hautagai nagusien zerrendan zeuden aurtentzen. Ez dute azken unea arte erreazionatu, eta finalerdietatik kanpora gelditu dira. Asier Olaizola jarraikortasunik lortu ezinda ibili da pubiseko ebakuntza egin ziotenetik. Patxi Ruizek gorabehera handiak izan ditu, eta ez du iaz egindako lan ona berrestetik izan.

UNANUE-PEÑAGARIKANO. Kanpora gelditu diren artean aurrera egiteko meritu gehien eginak zituztenak dira ziurrenik. Unanuek ederki asmatu du Peñagarikano hasiberria gidatzen. Primerako erantzuna eman zuen beizamarrak lehen jardunaldian, baina zalantza gehiagorekin aritu da hortik aurrera. Maila txukuna eman dute biek, eta Berasaluze VIII.a-Belokiren kontrako lehia erabakigarrian kale egiteagatik gelditu dira kalean.

ERRREMONTEA. Iñigo-Lizaso kontrarioek 40-25 galdu zuten joanekoan, eta lan txarra izango dute

Altuna I.a-Eizagirrek 26 tanto egitea nahikoa dute, gaur, binakako finalean sartzeko

E. Telleria | DONOSTIA

Binakako Erremonte Txapelketako lehen bikote finalista Uharteko Euskal Jai Berri pilotalekutik irtengo da gaur. Altuna I.a-Eizagirre eta Iñigo-Lizaso jokatu dute bertan finalerdietako itzuliko partida. Joaneko-

SAILKAPENA

A MULTZOA	Jo	Ir	Gal	TA	TK	Pt
1. Xala-Lasa III.a	4	4	0	88	55	4+33
2. Aimar O.-Pascual	4	3	1	82	43	3+39
3. Asier O.-Ruiz	4	2	2	71	66	2+5
4. Esain-Errasti	4	1	3	61	84	1-23
5. Goñi II.a-Elkoro	4	0	4	34	88	0-56

B MULTZOA

B MULTZOA	Jo	Ir	Gal	TA	TK	Pt
1. Agirre-Barriola	4	4	0	88	44	4+44
2. Beras-Beloki	4	3	1	77	62	3+15
3. Unanue-Peña	4	2	2	71	67	2+4
4. Titin-Zezeaga	4	1	3	67	74	1-7
5. Eugi-Goñi III.a	4	0	4	32	88	0-56

FINALERDIK (joanekoak)

Larunbatean, Iruñean, Xala-Lasa III.a eta Berasaluze VIII.a-Beloki (17:30, Tele 5).
Igandean, Donostian, Agirre-Barriola eta Olaizola II.a-Pascual (17:00, ETB1).

ESAIN-ERRASTI. Txapelketako partidarik gogorrenetakoan ireki zuen Errastik eskuin eskua, lehen jardunaldian. Beginoren lanak eutsi zien txapelketan, baina ez dute elkarrekin jokatzen asmatu. Esainek ez du inondik ere lau t'erdian erakutsitako mailarik eman. Errastik bere jakituria eta sufritzeko ahalmena erakutsi ditu, baina ez dira nahikoak izan.

TITIN III.a-ZEZEAGA. Hautagai nagusien zerrendan zeuden hasieratik. Titinen sasoia eta Zezeagaren esperientzia uzta-rrian jarrita, finalerdietan sartu zituen askok alde aurretik. Uberakoaren eskuko minak, ordea, hankaz gora jarri zituen Aspeko bikotearen asmoak. Apeztegiak arazoak izan zituen Zezeaga ordezkatzeko lehen partidari. Korrika eta presaka aritu behar izan dute hortik aurrera, eta ez dute asmatu.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

PASCUAL EUSKADI IRRATIA SARIKO ONENA. 48 puntu lortu ditu nafarrak bosgarren jardunaldian, Xalaren (46) eta Belokiren (43) aurretik.

EUGI-GOÑI III.a. Datuei eta jokoa-ri begira txapelketako bikoterik kaskarrena. Jokatuak laurak galdu dituzte eta ez dute ezerean itxurarik eman. Eugik joan den astean onartu zuen Bidarte nagusiari berari esan ziola ez zegoela sasoiko eta hasi aurretik txapelketatik kanpora utziko balute ulertuko lukeela. Ez dakigu bikoteak osatzerakoan hori baino argudio sendoagorik behar ote duten enpresek erabakiak hartzeko.

GOÑI II.a-ELKORO. Lehen egunetik zapuztu zituen Goñik Elkoren lana eta ilusioa, eta Rai aritu da geroztik. Mikel Goñik du errua baldintza horietan txapelketa bat jokatzea onartzeagatik, enpresak du errua aukera hori emateagatik, eta pilotazaleak du errua haren imintzioak eta aldrebeskeriak txalotzeagatik. Dena dela, sasoiko ez dagoelako pilotaria txapelketatik kendu izan balute, ez litzateke Goñi bakarra izan behar.

txarra izango dute gaur Iñigo-Lizasok. Partida irabazi beharra batetik, eta kontrarioak 25 tantoz azpitik utzi beharra bestetik. «Miraria behar dugu, baina gauza zailagoak ikusi dira eta ez dugu alde aurretik amore emateko inolako asmorik. Nik oso ongi sakatu beharra daukat, eta Iñigok tantoak primeran bukatu. Aldi berean, beraiek euren mailaz azpitik aritzea behar dugu», onartu zuen Iñaki Lizaso doneztebarrak. Onartzen dute galtzaileek joan den larunbate-

an Galarretan ez zutela eurenik eman, baina Euskalen hobeto moldatzen dira nafarrak.

Altuna I.a-Eizagirre kontrarioak, 15 tantoko abantaila hori izan arren, zuhur mintzatu ziren. «Sakean egongo da, beste behingoagatik, gakoa. Larunbatean bezala aritzen bagara finaleko txartela eskura izango dugu. Horretan saiatuko gara. Ez diogu markagailuari begiratu, eta partida irabaztera irtengo gara», nabarmendu zuen Jon Eizagirrek.

TXOKOAN

PALA

Unda I.a-Beldarrainen bigarren garaipena

Binakako Txapelketako sailkapeneko lehen postuan jarri dira Unda I.a eta Beldarrain. Jokatu dituzten bi partidetatik biak irabazi dituzte. Bilboko Deportivon lortu zuten atzo bigarren garaipena, Urkia-Garridoren kontra. Azken horiek ia partida osoan ibili ziren aurretik. Baita 44-42 ere, baina azken unean lortu zuten kontrarioek garaipena (44-45). Garrido izan zen partidako onena.

ESKU-HUSKA

2. Mailako Txapelketan, Beloki II.a-Pinedoren eta Del Rey-Auxkinen urratsa

2. Mailako Eskuz Binakako Txapelketako finalerdien joaneko partidak asteburuan jokatu ziren, eta Beloki II.a-Pinedo Asegarcetok eta Del Rey-Auxkin Aspekoek egin zuten lehen urratsa. Atxa-Arroyo II.aren kontra irabazi zuten lehenengoak (10-22), eta Arbizu-Galarza VI.aren kontra bigarrenak (15-22). Joaneko partidetak bat zehaztuta dago: larunbatean, Iruñean, Del Rey-Auxkin eta Arbizu-Galarza VI.a.

JAIALDIK

IGANDEKO EMAITZAK EIBAR.

Gonzalez-Urberuaga 15; Txafee-Eulate 22. Binakako Txapelketa: Eugi-Goñi III.a 6; Koka-Beloki 22. Haritz-Bernal 15; Muruamendiaraz-Taberna 18.

TAFALLA.

Nagore-Balardi 15; Bengoetxea VI.a-Begino 22. Unanue-Armendariz 22; Esain-Peñagarikano 13.

NAJERA.

2. Mailako Txapelketa: Arbizu-Galarza V.a 15; Del Rey-Auxkin 22. Capellan-Berna 15; Etxaniz-Apeztegia 22.

PAUSUA.

Binakako Elite Txapelketa: Aranburu-J.C. Dermit 33; Sorhuet-Ezkurra II.a 40. Muskarditz-R. Dermit 40; Ezkurra-Etxeto 38.

GALARRETA.

Martinez-Amenabar 26; Larrea-Gaztelu 35. Zeberio II.a-Iriarte 40; Altuna II.a-Etxabe 29. Agirresarobe-Auzmendi 40; Bitoria-Urko 32. Juaristi-Aizpurua 30; Iturralde-Badiola 19.

ATZOKO EMAITZAK DEPORTIVO.

Zarraga-Galan 40; Marin-Garma 33. Euskadiko Txapelketa: Urkia-Garrido 44; Unda I.a-Beldarrain 45. Iriondo-Aierbe 40; Urkijo-Torre 37.

GAURKO PARTIDAK EUSKAL. 16:00.

Martinez-Barrenetxea II.a / Uterga-Gaztelu. Binakako Txapelketa (finalerdia): Altuna I.a-Eizagirre / Iñigo-Lizaso. Elizalde-Aizpuru / Bitoria-Iriarte. Sarasua-Urretabizkaia II.a / Agirresarobe-Badiola.